

ETXEBIZITZA DUINA LANGILE GUZTIONTZAT!

Etxebizitza eskubidea bermatzea, langile jendearen oinarritzko bizi baldintza duintzeko ezinbestekoa da baina gaur egun etxebizitza eskubidea merkantilizatu eta espekulaziorako eta aberastasuna metatzeko erabiltzen ari da, ondorio sozial larriak eraginez.

LAB sindikatuaren ustez langileon bizitzen prekarizazioa ez da enpleguan ematen ari den fenomeno isolatua; gure bizitzaren eremu guztietara hedatzen ari den gaitza da. Horregatik, lantokietan lan baldintzak hobetzeko borrokaz gain, ABIATU, ekintza sozialeko komunitatea tresna sortu dugu, langileon bizi baldintza duinen aldeko borroka integrala eraginkorrago egiteko.

Lehen urratsa da orain ematen ari garena: etxebizitza duinaren aldeko aldarrikapenak sozializatu, egoeraren arduradunak interpelatu eta indarrak biltzeko kanpaina abiatu dugu eta gurekin bat egitera gonbidatu nahi zaitugu: Bizitza duina merezi dugulako eta horretarako langileoi guztioi kalitatezko etxebizitza duinerako sarbidea bermatu behar zaigulako. Hauek dira gure aldarrikapenak:

1. ETXEBIZITZA ESKUBIDE SUBJEKTIBO ERREALA.

Oinarritzko eskubideen sarbidea da etxebizitza eskubidea izatea eta beraz, sarbide unibertsalari uko egitea, indarkeria estrukturala eta instituzionala da. Ezin dira onartu etxebizitza eskuratzeko inongo diskriminaziorik (sexu-generikoak, arraza, adina) eta hauek legez zigortu behar dira

2. ESPEKULAZIOARI EZ. ALOKAIRU SOZIAL ARAUTUA LEHENETSI.

Erabilera balioa lehenetsi behar da, merkantilizazioari ateak itxiz. Horretarako, alokairuaren prezioa arautu behar da hiri/herriaren arabera adierazle soziala sortuz.

3. GEHIENEZ DIRU SARREREN %30A.

Pertsona bakoitzak ez luke bere diru sarreraren %30 baino gehiago bideratu behar alokairu/hipoteka gastuetarako, larrialdi egoeran dauden edo etxebizitza publikoen kasuan, gehienez %15a izanik. Horrela, alokairuetan KPIaren igoera debekatu soldata igoera bera izan ez dutenentzat.

4. PARKE PUBLIKOA HANDITU, JABEGO HANDIAK DESJABETU!

Eraiki aurretik, eraldatu: etxebizitzak trantsizio ekologikorako prestatu behar dira eta jabetza publikoan dauden kopurua handitu. Nola? Funts putre eta espekulaziorako darabilten jabego handien etxeak desjabetuz.

5. ETXEGABETZEAK GELDITU

Hipoteka eta alokairuzko etxegabetzeak debekatu eta alternatibak bermatu behar ditu instituzioak. Etxebizitza eskubidea bermaturik ez dagoen bitartean, okupazioa despenalizatu.



[HTTPS://WEB.LAB.EUS/ABIATU/ETXEBIZITZA-ESKUBIDEA/](https://web.lab.eus/abiatu/etxebizitza-eskubidea/)

HTTPS://WEB.LAB.EUS/ABIATU/ETXEBIZITZA-ESKUBIDEA/